

III. KAPITULUA

Aniztasunari eman beharreko hezkuntza-erantzunaren neurriak eta laguntzak

Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala

[...7. artikuluan, 3. puntuan]

3.– Neurri eta laguntza unibertsalek Ikaskuntzarako Diseinu Unibertsala izango dute irakatsi eta ikasteko prozesuaren ikusmolde nagusitzat. Besteak beste, honako hauek sartzen dira kategoria horretan:

- a) Hezkuntza-testuinguruen aldaketa eta ikaskuntzarako irisgarritasun unibertsala: ikaskuntza pertsonalizatzeko estrategia jakin batzuk hautatzea.
- b) Espazioen, taldeen, denboren eta ikastetxeko baliabide pertsonalen antolaketa eta curriculumak garatzeko metodologia inklusiboen proposamenak: esparruen araberako lana, zenbait arloren baterako lana, ikasgelako bi irakasleren edo gehiagoren laguntza eta/edo errefortzua, ikasgela barruko laguntza espezializatua, taldeak txikiagotan banatzea, taldekatze malguak, irakaskuntza partekatua, elkarlaneko ikaskuntza, proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, talde interaktiboak, zerbitzu-ikaskuntza eta garatu litezkeen beste modalitate inklusibo batzuk.
- c) Detekzio eta esku-hartze goiztiarrerako protokoloak aplikatzea.
- d) Prestakuntza-ebaluazioa eta ebaluazio hezitzailea.
- e) Harrera-programa orokorrak.
- f) Tutoretza- eta orientazio-prozesuak. Tutoretzak irakasle guztien hezkuntzako esku-hartzea koordinatuko du eta etengabeko harremana izango du gurasoekin eta legezko ordezkariekin, desberdintasun indibidualei arreta emateko neurrien berri emateko.
- g) Ikasleen aniztasunari erantzuten dioten bestelako jarduketak.